



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko otsailaren 11

14. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-25/LEY-00001. Foru-lege proiektua, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-25/PRO-00004. Foru-lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeko. EH Bildu Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (4. or.).

—11-24/PRO-00018. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (6. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/ITP-00005. Interpelazioa, migrazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/POR-00052. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obrei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).

—11-25/POR-00053. Galdera, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurka Borrokatzeko apirilaren 15eko 13/2023 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (8. or.).

—11-25/POR-00054. Galdera, egoitza-zentroetako neska-mutikoak babesteari eta familia-harrerari buruzkoa. Isabel Aranburu Bergua andreak egin du (9. or.).

- 11-25/POR-00055. Galdera, MOVES III Plana berriz luzatu beharri buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00056. Galdera, fakturazio elektronikoko sistema bat ezartzeari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00057. Galdera, Gobernu Irekiko Aliantzarako I. Ekintza Planari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00058. Galdera, lanaldi-murrizketari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00059. Galdera, autokontsumorako eguzki-plakak paratzeko laguntzetarako funts eskasia arintzeko neurriei buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00060. Galdera, Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2018ko Ituna berri-
tzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00061. Galdera, I+G+b arloko eskumenen kudeaketa Nafarroari eskualdatzeko izapideei buruzkoa. Javier Ollo Martínez jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00062. Galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emaki-
dak berrietzeari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00063. Galdera, kirol inklusiboa sustatu, lagundu eta aldezteko neurri zehatzak 2025ean abian
jartzeari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00064. Galdera, Nafarroan laneko ezbeharren tasa jaisteko neurriei buruzkoa. María Teresa
Nosti Izquierdo andreak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00065. Galdera, azpiegitura hidrikoei eta Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan
Gidariaren garapenari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00066. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen soldaten arteko ezber-
dintasunak ekiditeko neurriei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00067. Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriko hidrogeno berdeko plantari buruz-
koa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00068. Galdera, 2025ean herrietan eginen diren inbertsioei buruzkoa. Mario Fabo Calero jau-
nak egin du (18. or.).
- 11-25/POR-00070. Galdera, bakarrik dauden adingabeak hartzeari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jau-
nak egin du (18. or.).
- 11-25/POR-00071. Galdera, enpresa berriak erakartzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du
(19. or.).
- 11-25/POR-00072. Galdera, Trumpen administrazioak iragarri duen muga-zergen politikak Nafarroako
industrian izan dezakeen eraginari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (19. or.).
- 11-25/POR-00073. Galdera, hurrengo enplegu-planaren aurreikuspenei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi
jaunak egin du (20. or.).
- 11-25/POR-00074. Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio
politikoko ekintzen biktimen errekonozimendua dela-eta egin diren aurrerabideei buruzkoa. Pablo Azcona
Molinet jaunak egin du (20. or.).
- 11-25/POR-00075. Galdera, Nafarroako industriaren sektorearen ziurgabetasun eta eraispen egoerari
buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (21. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00001. Foru-lege proiektua, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

2025eko otsailaren 10ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. 2025eko otsailaren 17ko 12:00ak arte luzatzea Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duen foru-lege proiektuari zuzenke-

tak aurkezteko epea. Foru-lege proiektua 2025eko urtarrilaren 24ko 5. NPAOn argitaratu zen.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00004. Foru-lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, EH Bildu Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatzeko

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen helburuetako bat da erregimen frankistaren gogorazpenerako erreferente ikonikoak kentzea, sinbologia horrek orainaldian iraunarazten dituen oroitzapenen kohesioa apurtzeko.

Diktadura garaian, eraikin batzuk Francoren diktaduraren balioen gogorazpen- eta propaganda-esanahiarekin erabili ziren, horiek denboran iraunarazteko asmoz. Eraikin horien adibide dugu "Erorien omenezko monumentu" gisa ezagutzen dena.

"Nafarroak Gurutzadako bere hildakoei" eraikina 1942an jaso zen, Nafarroako Diputazioaren ekimenez, garaileen alderdiko hildakoak omendu eta Francoren diktadura goresteko. Eraikuntza-proiektuak adierazten duen bezala, Erorien omenezko Monumentua botozko tenplu gisa izan zen kontzeptua, Gurutzadaren botere- eta aintza-ikur gisa; eta zeharka, diktaduraren sinbolo bezala.

1998an, eta Foru Diputazioak monumentua botozko izaeraz gabetu ondoren, Artzapezpikutzak eta Kristo Erregearen parrokiak Iruñeko Udalarri dohaintzan eman zioten monumentua. Dohaintza hura baldintzatu zen gurtza-ekitaldietarako kripta zentralaren gozamina betiko erreserbatua gertazera.

Jabetasuna eskuratu ondoren, zenbait neurri hartu dira eraikina sinbologia frankistaz gabetzeko. Aipatu kripta hori eraikinaren gainerakotik

isolatua eta parrokia horren esanetara utzi zen. "Gurutzada" deritzonaren eta frankismoaren erregimenaren gorespenerako inskripzioak estali egin ziren; eta, eraberritze- eta egokitze-obra batzuk tarteko, eraikina erakusketa-areto gisa tankeratua izan zen.

2002an onetsi zen Udal Plana, zeinak monumentu-multzoa "Erorien omenezko Monumentu" izenpean bildu baitzuen. Eraikin Babestuen Katalo- goan agertzen da, 2. gradukotzat sailkatuta barne- espazioa, kriptak eta estalkia, eta 3. gradukotzat, albo-arkuteriak.

2016an Nafarroako Gobernuak sinbolo frankisten behin-behineko errolda eta sinbologia hori kentzeko gomendioak onetsi zituen. Erorien omenezko Monumentua hor jasota dator. Iruñeko Udalak erabaki zuen monumentu horren azpialdean dagoen kriptak hobiratze-leku izateari utz diezaiola, eta desobiratu egin zituen Mola eta Sanjurjo jeneralen eta kriptan lurperatutako boluntario frankisten gorpuzkinak.

Urratsak egin badira ere eraikina bere jatorrizko esanahiaz gabetzeko, beharrezkoa da eraikin horri esanahi berri bat ematea, memoria historiko kritiko bati eustearrekin bateragarria izanen den moduan.

Xede horrekin, proposatzen da eraikinaren erabilera aldatu eta hura hartaraztea gerran eta diktaduran egin ziren giza eskubideen urraketa larrien zergatiak eta aitzin-gibelak ezagutaraztera, bai eta hausnarketa eta ohartarazpena egitera ere faxismo-forma berrien arrisku eta perilei buruz, horiek demokraziarekin, aniztasunarekin eta justizia sozialarekin talka egiten duten aldetik. Halaber, balioan jarriko dira bai elkarbizitza bai giza eskubideekiko begirunea.

Helburua da giza eskubideen alorrean dauden nazioarteko estandarrei atxikitzea, memoria kolek-

tiboa ahanzturarengandik babesteko eta tesi erre- bisionisten eta negazionisten sorrera ekiditeko.

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri berria ematea 1936ko kolpe militarren ondorioz erail- dako eta errepresioaren biktima izandako Nafarro- ako herritarrei errekonozimendua eta ordain mora- la ematen dien azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legeari. Honako testu hau izanen du:

Xedapen gehigarria. "Nafarroak Gurutzadako bere hildakoei" monumentua.

1. "Nafarroak Gurutzadako bere hildakoei" monumentuak, halaber "Erorien omenezko Monu- mentu" deritzon horrek, are desobiratzeen ondo- ren eta frankismo-garaiaren sinbologia bereizgarri- rik gehiena kendua izan ondoren ere, oraindik totalitarismozko propaganda ispiatzen du, al- txamendu faxista eta haren ondorengo ia 40 urte- tan zeharreko erregimen frankista gorestekoa.

2. Monumentu horren erabilerak huts-hutsik izan daitezke gerran eta diktaduran izandako giza esku- bideen urraketa larrien zergatiak eta aitzin-gibelak ezagutaraztekoak eta hausnarketa eta ohartarazpe- na egitekoak faxismo-forma berrien arrisku eta peri- lei buruz, horiek demokraziarekin, aniztasunarekin eta justizia sozialarekin talka egiten duten aldetik. Halaber, balioan jarriko dira bai elkarbizitza bai giza eskubideekiko begirunea. Hori guztia, ezertan kal- tetu gabe foru lege honen helburuekin zerikusia duen udal-autonomia.

3. Aginduzkoa da erregimen frankistaren garai- penaren gorespenezkoak gertatzen diren zati sin- bolikoak erretiratzea eta kupularen barnealdeko margolanak estaltzea.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale- an argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

11-24/PRO-00018. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

2025eko otsailaren 10ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. 2025eko otsailaren 19ko 12:00ak arte luzatzea aipatu foru-lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruz-

ko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena, 2024ko abenduaren 13ko 144. NPAOn argitaratu zen.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/ITP-00005. Interpelazioa, migrazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako interpelazioa, migrazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babe-

sean, gaurkotasun handiko honako interpelazio hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak heldu den otsailaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Aspaldi-aspalditik, diskurtso gero eta alarmistagoa eta xenofoboagoa ari gara entzuten migrazioaren eta migratzaileen auzian.

Mezu horiek arriskuan jartzen dituzte bizikidetzak baketsua eta giza eskubideekiko errespetua, modu interesatuan uzten baita alde batera migrazioak gure erkidegoari egiten dion ekarpen positiboa.

Hori dela-eta, migrazioak Foru Erkidegoan duen inpaktu positiboari dagokionez Nafarroako Gobernuak migrazioaren arloan darabilen politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dugu.

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00052. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obrei buruzkoa*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ahozko galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari:

Nafarroako Gobernuak zer ekimen edo neurri abiarazi du heldu den udaberrian lizitatu ahal izan daitezen Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obrak?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00053. Galdera, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurka Borrokatzeko apirilaren 15eko 13/2023 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurka Borrokatzeko apirilaren 15eko 13/2023 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurka Borrokatzeko apirilaren 15eko 13/2023 Foru Legearen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean eraginkorra izatea berdintasunerako eta etnia- edo arraza-jatorriagatik diskriminatua ez izateko oinarritzko eskubidea.

Eskubide hori eraginkorra izatea ahalbidetuko duten politika publikoak garatzeko, funtsezkoa da lege hori erregelamendu bidez garatzea. Halere, erregelamendu hori taxutu gabe dago oraindik, legea onetsi eta 22 hilabetera.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuari:

Zer prozesu ari dira garatzen erregelamendu hori taxutzeko eta zer epe darabil zure departamentuak erregelamendu hori onesteko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

11-25/POR-00054. Galdera, egoitza-zentroetako neska-mutikoak babesteari eta familia-harrerari buruzkoa

ISABEL ARANBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aranburu Bergua andreak egindako galdera, egoitza-zentroetako neska-mutikoak babesteari eta familia-harrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aramburu Berguak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak, ahoz erantzun dezan:

Magale elkarteak orain dela gutxi ohartarazi zuen Nafarroan 5 ume bizi direla oraindik ere egoitza-zentroetan, familia batean bizi beharrean.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari: departamentua zer ari da egiten ume horiei eskaintzen zaien babes-modalitateari eta, oro har, familia-harrerari dagokienez?

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

11-25/POR-00055. Galdera, MOVES III Plana berriz luzatu beharrari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, MOVES III Plana berriz luzatu beharrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezagak ahoz erantzun dezan:

Joan den abenduaren 31n amaitu zen, luzatu eta gero, mugikortasun elektrikoari laguntzeko MOVES III Plana; izan ere, 2024aren erdialdean amaitu behar zen hasiera batez.

Berriz luzatzeko proposamena zegoen jasota omnibus dekretua izenekoan; dekretua urtarrilaren 22an ezetsi zen, eta astebete geroago onetsitako dekretutik kanpo gelditu da. Horri buruzko beste proposamen bat egonen da itxura guztien arabera.

Hori hala bada ere, honako hau galdetzen diogu Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari: zer balorazio egiten duzu MOVES III Plana berriz luzatzeko premiari buruz?

Iruñean, 2025eko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-25/POR-00056. Galdera, fakturazio elektronikoko sistema bat ezartzeari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, fakturazio elektronikoko sistema bat ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garridok, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak ba al du fakturazio elektronikoko sistema bat ezartzeko asmorik foru erkidegoan egiten diren jarduera ekonomiko guztietarako, kudeaketa bateratu eta homogeen bat ahalbidetzeko eta Foru Ogasunak hori kontrolatzea errazteko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/POR-00057. Galdera, Gobernu Irekiko Aliantzarako I. Ekintza Planari buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, Gobernu Irekiko Aliantzarako I. Ekintza Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garatek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lehendakari eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak bere I. Ekintza Plana onetsi du Gobernu Irekiaren Nazioarteko Aliantzarako kidea gisa (erakunde horren eskutik demokrazia osoago eta perfektionatuago baterantz joateko sortu zen plana).

Nafarroako Gobernuak zer erronka lortu nahi du Gobernu Irekiaren Nazioarteko Aliantzarako I. Ekintza Planarekin?

Iruñean, 2025eko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-25/POR-00058. Galdera, lanaldi-murrizketari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, lanaldi-murrizketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak otsailaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Espainiako Gobernuak, Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak premiatuta, lanaldia murrizteko legearen aurreproiektua urgentziaz izapidetzea onetsi du.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak zer balorazio egiten du lanaldi-murrizketak Nafarroako langileen gehiengo sozialean izanen duen inpaktuari buruz?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/POR-00059. Galdera, autokontsumorako eguzki-plakak paratzeko laguntzetarako funts eskasia arintzeko neurriei buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, autokontsumorako eguzki-plakak paratzeko laguntzetarako funts eskasia arintzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Autokontsumorako eguzki-plakak paratzeko laguntzen eskaria funtsak baino handiagoa dela eta funtsak partikularren eta enpresen eskari guztiak asetzeko aski izanen ez direla ikusita,

Nafarroako Gobernuak zer jarduketa edo ekin-tza aurreikusten du autokontsumorako instalazioen eskariei behar bezala erantzuteko funts-eskasia arintzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-25/POR-00060. Galdera, Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2018ko Ituna berritzeari buruzkoa

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2018ko Ituna berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2018ko Ituna berritze aldera Nafarroako irakaskuntza publikoko sindikatuen ordezkariekin izaten ari den negoziazioa?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

11-25/POR-00061. Galdera, I+G+b arloko eskumenen kudeaketa Nafarroari eskualdatzeko izapideei buruzkoa

JAVIER OLLO MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Ollo Martínez jaunak egindako galdera, I+G+b arloko eskumenen kudeaketa Nafarroari eskualdatzeko izapideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Javier Ollo Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako gal-

dera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilari Juan Luis García Martínek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela urtebete, Nafarroako Gobernuako lehendakari María Chivitek eta Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministro Ángel Víctor Torresek iragarri zuten Nafarroak eta Estatuak izapideak abiaraziko zituztela foru-erkidegoari eskualdatzeko I+G+b eta beken eskumenak eta AP-68 autobidearen Nafarroako tartearen titulartasuna.

Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilari izendatu berri zaituztenez, honako hau galdetzen dizugu: zertan dira I+G+b arloko eskumenen kudeaketa Nafarroari eskualdatzeko izapideak?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Ollo Martínez

11-25/POR-00062. Galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzea? Nafarroako Gobernuak zer denbora-aurreikuspen darabil emateke dauden emakida horietako bakoitzari dagokionez?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/POR-00063. Galdera, kirol inklusiboa sustatu, lagundu eta aldezteko neurri zehatzak 2025ean abian jartzeari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, kirol inklusiboa sustatu, lagundu eta aldezteko neurri zehatzak 2025ean abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

2024ko ekainaren 5ean, Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak kide guztien aldeko botoarekin onetsi zuen 11-24/MOC-00074 mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen bost neurri zehatz aplikatuzan kirol inklusiboa sustatzeko, laguntzeko eta aldezteko.

Mozioan honako neurri zehatz hauek aipatzen ziren:

1. Laguntza eta dirulaguntza bereziak, deialdi orokorren esparrutik at.

2. Beraien entrenamenduetarako espazio publikoak.

3. Boluntariora sustatu eta prestatzea.

4. Toki-entitateentzako laguntzak, kirol inklusiboko jardueretarako, eta koordinazio plana.

5. Berariazko prestakuntza teknikoa desgaitasuna duten kirolarientzat, teknikari, epaile edo buruzagi eginkizunak egin ahal izan ditzaten.

Abenduaren 16an, mozio horren jarraipena egite aldera, honako informazio-eskari hau aurkeztu nuen:

Iragan ekainaren 5ean, 11-24/MOC-00074 mozioa onetsi zen batzordean kirol inklusiboa sustatzeko eta aldezteko bost neurri zehatz har zitezten. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zer egin du denbora honetan mozio hori betetzeko?

Zer neurri hartuko da 2025erako aurreikusten den plangintzaren barruan mozioa betetzeko?

2025eko urtarrilaren 20an jaso nuen Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariaren erantzuna, zein zehazten baitziren Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua bere urteko programaren baitan kirol egokitu eta inklusiboaren arloan egiten ari den zenbait ekintza; erantzunean, ordea, ez zen aipatzen Parlamentuko batzordeak onetsi zuen 11-24/MOC-00074 mozioan jasotako bost neurri zehatz horietako bat ere.

Hori dela-eta, honako ahozko galdera hau egingen dut:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak aurreikusita al dauka 2025an ezartzea Kirol inklusiboa sustatu, lagundu eta aldezte aldera Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak 2024ko ekainaren 5ean onetsitako 11-24/MOC-00074 mozioan jasotako neurri zehatzak?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/POR-00064. Galdera, Nafarroan laneko ezbeharren tasa jaisteko neurriei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroan laneko ezbeharren tasa jaisteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak otsailaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure gobernuak zer neurri ezarriko du Nafarroan laneko ezbeharren tasa jaisteko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/POR-00065. Galdera, azpiegitura hidrikoei eta Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Gidariaren garapenari buruzkoa

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako galdera, azpiegitura hidrikoei eta Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Gidariaren garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer jarduketa eta inbertsio aurreikusten du egitea 2025ean Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzaileko azpiegitura hidrikoak egiteko eta plana garatzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

11-25/POR-00066. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen soldaten arteko ezberdintasunak ekiditeko neurriei buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen soldaten arteko ezberdintasunak ekiditeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Martxoaren 29ko 11/2023 Foru Legeak, zeinaren bidez aldatu baitzen Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berriazko erregimenari buruzko 11/1992 Foru Legea, langileen ordainsari osagarriak ezartzen ditu. 6. artikulua 1. puntuak honako hau ezartzen du: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileek honako ordainsariak bakarrik jasotzen ahalko dituzte:

a) Oinarrizko ordainsari pertsonalak:

b) Ordainsari osagarriak:

c) Kalte-ordainak eta beste ordainsari berezi batzuk.

2. Oinarrizko ordainsari pertsonalak dira:

a) Kasuko maila edo taldearen hasierako soldata.

b) Antzinasun-saria. Oinarrizko ordainsari pertsonalak eskuratutako eskubidea dira, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko funtzionarioen eta estatutupeko langileen izaerari datxekiona.

3. Ordainsari osagarriak dira:

a) Destinoko osagarria.

b) Berriazko osagarria.

c) Ezohiko produktibitateagatiko osagarria.

d) Kapitazio-osagarria.

e) Gaueko lanagatiko osagarria.

f) Jaiegunetako lanagatiko osagarria.

g) Presentzia fisikoko guardiak edo guardia lokalizatuak egiteagatiko osagarria.

h) Egun berezietan lan egiteagatiko osagarria.

i) Langile fakultatiboen produktibitate finkoko osagarria.

j) Lanpostuko osagarria, Oinarrizko Osasun Laguntzako administrazio-langileentzako.

4. Kalte-ordainak eta beste ordainsari berezi batzuk:

a) Sakabanatze geografikoagatiko gehigarria.

b) Familia-laguntza.

c) Konpentsatze-osagarria.

d) Gastu-ordainak, honako arrazoiengatikoak: zerbitzu-arrazoiak, bidaiak egitea, egoitza-aldaketa dakarren nahitazko lekualdaketa, edo lanpostu betegaitzetera lekualdatzea.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartzeagatiko konpentsazioak.

f) Irakasle aritzeagatiko edo prestakuntza-ikastaroak emateagatiko konpentsazioak.

g) Aparteko orduak egiteagatiko konpentsazioak.

h) Gizarte-ikerketako lineetan edo programeetan parte hartzeagatiko konpentsazioak.

i) Prestakuntzan dauden barne profesional egoiliarrekiko tutore-lanagatiko konpentsazioak.

11/1992 Foru Legeak, ordea, ez du zehazki ezartzen zer diru-kopuru sortu ahalko duen profesional bakoitzak ordainsari osagarri bakoitza dela eta, eta horiek banaka-banaka aplikatzeak berekin dakar ordainsariak oso bestelakoak izatea estamentu profesional bakoitzeko pertsonen artean. Muturreko kasua da, hain zuzen ere, medikuntzako

langileena, non urteko soldatarik handienaren eta txikienaren arteko aldea hainbat aldiz biderkatzen baita.

Hori dela eta, honako hau jakin nahi dut:

Osasuneko kontseilariak ba al du asmorik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen arteko soldaten arteko alde horiek ekiditeko neurriak hartzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-25/POR-00067. Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriko hidrogeno berdeko plantari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriko hidrogeno berdeko plantari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2023ko otsailean, Chivite lehendakariak amaiera eman zion "GreenH2CATudela" proiektua aurkezteko jardunaldiari. Proiektuaren arabera, hidrogeno berdeko planta bat eraiki behar zen Tuterako nekazaritza-elikagaien hirian (CAT), bertako enpresak eta, oro har, Erriberako industriak energiaz hornitzeko.

Zertan da proiektu hori?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/POR-00068. Galdera, 2025ean herrietan eginen diren inbertsioei buruzkoa

MARIO FABO CALERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mario Fabo Calero jaunak egindako galdera, 2025ean herrietan eginen diren inbertsioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mario Fabo Calero jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Udalaren kolore politikoa zein den, horren arabera inbertituko du 2025ean zuk zuzentzen duzun departamentuak. Zergatik?

Iruñean, 2025eko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Mario Fabo Calero

11-25/POR-00070. Galdera, bakarrik dauden adingabeak hartzeaz buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, bakarrik dauden adingabeak hartzeaz buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak “modu solidarioan” banatuko ditu bakarrik dauden 4.500 adingabe inguru autonomia-erkidegoen artean.

Zure Gobernuak Nafarroan zenbat hartzea aurreikusten du?

Iruñean, 2025eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/POR-00071. Galdera, enpresa berriak erakartzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, enpresa berriak erakartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko irailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, gaurkotasan handiko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak otsailaren 13ko Osoko Bilkuran (osteguna) ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarri nahi du foru-erkidegora enpresa berriak etortzea ahalbidetzeko?

Iruñean, 2025eko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00072. Galdera, Trumpen administrazioak iragarri duen muga-zergen politikak Nafarroako industrian izan dezakeen eraginari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasan handiko galdera, Trumpen administrazioak iragarri duen muga-zergen politikak Nafarroako industrian izan dezakeen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken egunotan, kezkaz ikusi ditugu merkataritza-politikak direla-eta Estatu Batuetako gobernuak egin dituen iragarpenak. Donald Trump lehendakariak muga-zergak jartzeko mehatxua egin die Mexiko, Kanada eta Txinari, eta Europar Batasuna ere ez litzateke merkataritza-gerra horretatik at geldituko.

Nafarroako industriak ziurgabetasun-egoera bizi du gaur egun, eta gure zenbait enpresak arazo larriak dituzte: Sunsundegui, BSH, Siemens Gamesa. Horri Estatu Batuen muga-zergen arloko mehatxua gehitu behar zaio orain.

Gobernuaren ustez, Trumpen administrazioak iragarri duen muga-zergen politikak zer eragin izan dezake Nafarroako industrian?

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-25/POR-00073. Galdera, hurrengo enplegu-planaren aurreikuspenei buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, hurrengo enplegu-planaren aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak otsailaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darama hurrengo enplegu-planari begira?

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-25/POR-00074. Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimendua dela-eta egin diren aurrerabideei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimendua dela-eta egin diren aurrerabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollo Hualde andreak otsailaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak errekonozimendu-ekintza publiko bat egingen du heldu den ostegunean, otsailak 13, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen babesean.

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria zaren aldetik, zer balorazio egiten duzu biktimen errekonozimendua dela-eta egin den aurrerabideari buruz?

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-25/POR-00075. Galdera, Nafarroako industriaren sektorearen ziurgabetasun eta eraispen egoerari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Nafarroako industriaren sektorearen ziurgabetasun eta eraispen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko lehendakaria bat al dator Nafarroako industriaren sektorea ziurgabetasun eta eraispen egoera bizitzen ari delako ustearekin?

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

